

Behin behineko ebazpena, Hezkuntza Politiketako sailburuordearena, zeinaren bidez egiaztatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoan funts publikoen bitartez finantzatzen diren unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako irakasleek lortutako kompetentzia digitala Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak xede horretarako antolatutako prestakuntza-jarduerak gauzatuta.

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako irakasleen kompetentzia digitala egiaztatzeko prozedura arautzen duen 2024ko azaroaren 29ko Hezkuntzako sailburuaren Aginduak, irakasleen prestakuntzaren arloan eskumena duen organoak ofizioz egiaztatu ahal izango duela irakasleen kompetentzia digitala ezartzen du, xede horretarako aitortutako prestakuntza-jarduera gainditu dutenei.

Beraz, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 381/2024 Dekretuan aurreikusitakoarekin bat etorriz (2024ko abenduaren 3ko EHAA, 235. zk.) eta eman zaizkidan ahalmenak baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa

Ofizioz egiaztatzea Euskal Autonomia Erkidegoan funts publikoen bitartez finantzatzen diren unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako irakasleen kompetentzia digitala, maila bakoitzean Irakasleen Kompetentzia Digitala lortzeko Hezkuntza Sailak ezarritako prestakuntza gainditu dutenei.

Zehazki, irakasleen kompetentzia digitalaren A1, A2, B1 eta B2 mailak egiaztatzen dira, prestakuntza-jarduera hauetan,

IKASTURTE	KODEA	HASIERA	BUKAERA	MAILA
2025/2026	2559CFP001	2025/09/26	2026/01/18	A1-B1
2025/2026	2559CFP002	2025/09/26	2026/01/18	A1-B1
2025/2026	2559CFP003	2025/10/03	2026/01/18	A2-B1
2025/2026	2559CFP004	2025/10/03	2026/01/18	A2-B1
2025/2026	2559CFP005	2025/09/19	2025/12/07	B1
2025/2026	2559CFP006	2025/09/19	2025/12/07	B1
2025/2026	2559CFP009	2025/09/19	2025/12/07	B2
2025/2026	2559CFP010	2025/09/19	2025/12/07	B2

Bigarrena

1. Lortutako irakasleen konpetentzia digitalaren maila egiaztatzen duen dokumentua ematea. Hezigueko Langileen Atariko eremu pribatuan eskuratu ahal izango da.
2. Egiaztagiria Estatuko lurralde osoan balio du.

Hirugarrena

Hamar egun balioduneko epea ezartzea, Hezkuntza Sailaren atarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Behin betiko ebazpenaren bidez jakingo da erreklamazio horiek onartu edo ezeztatu diren. Behin betiko ebazpen hori behin-behineko ebazpena argitaratu eta gehienez hilabeteko epean argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, sinatzen den eguna,

Jon Labaka Intxauspe

Lanbide Heziketako sailburuordea